

II. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure esku dauzkazu zeru-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren eskariak
eta eman zeure bakea gure egunotan.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Sm 3, 3b-10. 19

Mintza, Jauna; zure morroi hau entzuten dago.

Samuelen liburutik

Egun haietan, Samuel ohera joana zen, Jaunaren kutxa zegoen jauretxean. Jaunak dei egin zion: «Samuel!» Hark erantzun: «Hona hemen ni». Lasterka Elirengana joan zen, eta esan zion: «Hona hemen ni; deitu nauzulako etorri naiz». Hark erantzun: «Ez dizut dei egin; zoaz berriz ohera». Eta ohera itzuli zen, lo egitera.

Jaunak berriro dei egin zion: «Samuel!». Eta Samuel jaiki zen, eta Elirengana joan eta esan zion: «Hona hemen ni, deitu nauzulako etorri naiz». Eta Elik erantzun: «Ez dizut dei egin, seme; zoaz berriz ere ohera». Samuelek ez zuen ordurarte Jauna ezagutzen; eta Jaunaren mintzoa ez zitzaion oraindik ezaguna.

Hirugarren aldiz Jaunak dei egin zion Samueli. Eta Samuelek jaikita, Elirengana joan eta esan zion: «Hona hemen ni, deitu nauzulako etorri naiz». Ezagutu zuen Elik Jauna zela, haurrari dei egin ziona; eta Elik honela esan zion Samueli: «Zoaz lo egitera; eta norbaitek dei egiten badizu, esan: "Mintza, Jauna, zure morroi hau entzuten dago"». Joan zen Samuel bere tokira eta etzan zen.

Etorri zen Jauna eta dei egin zion, besteetan bezala: «Samuel, Samuel!» Eta Samuelek erantzun: «Mintza, Jauna; zure morroi hau entzuten dago».

Samuel hazitzen ari zen; eta harekin zegoen Jauna; eta Jaunaren hitz bakar bat ere ez zuen utzi bete gabe.

ERANTZUN SALMOA: Sal 39, 2 eta 4ab. 7-8a. 8b-10

R/. **Hemen nauzu, Jauna,
zure nahia egin dezadan.**

Itxaron dut Jaunarengan, itxaron,
makurtu zait eta nire oihua badu entzun.

Ahoan eresi berri bat ipini dit,
gure Jainkoarentzat gorespen. R/.

Opari eta eskaintzarik ez duzu nahi izan,
baina belarriak ireki dizkidazu.
erreopari eta hoben oparirik ez duzu eskatu,
eta orduan esan dut nik: «Hemen nauzu». R/.

Liburuan nitaz hau dago idatzia:
egin dezadala zure nahia.
Ene Jainko, gogozko zait hori,
eta bihotz-mamian daukat zure legea.
Iragarri dut batzar nagusian zure salbamena,
ezpainik ez dut itxi, badakizu, Jauna. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Kor 6, 13c-15a. 17-20

Zuen gorputzak Kristoren gorputz atal dira.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Gorputza ez da haragikeriarentzat, Jaunarentzat baizik; eta Jauna gorputzarentzat.
Jauna biztu zuen Jaungoikoak, biztuko gaitu gu ere bere indarrez.

Ez al dakizue, zuen gorputzak Kristoren gorputz atal direla? Jaunarekin elkartzen dena, espiritu bat da Harekin.

Ihes egizue haragikeriatik. Gizonak egin dezakeen beste edozein bekatu, gorputzetik landa gelditzen da; baina haragikeria egiten duenak, bere gorputzean egiten du bekatu.

Edota ez al dakizuen zuen gorputza Espiritu Santuaren jauretze dela? Zuengan bizi da Bera, Jaungoikoak emanda. Ez zarete zeuen buruaren jabe, garesti erosiak baizik. Goretsazue, beraz, Jaungoikoa zeuen gorputzarekin.

EBANJELIOA: Jn 1, 35-42

Aleluia: Jn 1, 41b. 17b

R/. Aleluia.

V/. Mesias aurkitu dugu –hau da: Kristo–.

Grazia eta egia, Honen bidez etorri dira. R/.

*Ikusi zuten non bizi zen,
eta Harekin gelditu ziren*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, han zegoen berriro Joan, bere ikasleetako birekin. Eta Jesus han zebilela ikusirik, esan zien: «Horra hor Jaungoikoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus haiengana eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zer zabiltzate?» Eta haiek erantzun: «Rabbi —hau da: Maisu—, non bizi zara?» Jesusek erantzun: «Zatozte eta ikusiko duzue». Etorri ziren, beraz, eta ikusi zuten non bizi zen; eta egun hartan Harekin gelditu ziren. Arratsaldeko lauak inguru ziren. Joani entzunda, Jesusi jarraitu zioten bi haietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Honek Simon, bere anaia, aurkitu zuen lehenengo, eta hala esan zion: «Mesias aurkitu dugu» —hau da: Kristo—. Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begiratu, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea. Kefas izango da zure izena» —hau da: Harria—.

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna,
zintzo hurbil gaitetzela sakramentu honetara;
gure erospena egiten baita
opari hau oroigarri ospatzen dugun bakoitzean.
Jeskristo.

Jaunartze ondorengoa

Isuriezaguzu, Jauna, zeure maitasun espiritua,
zeruko ogi bat-beraz janaritu gaituzunok
zeure maitasunean bat egin gaitzazun.
Jesu Kristo.